

**JENDAURREAN ZABALDU GABEKO AKORDIOZKO PROZEDURA BIDEZ, OBRA  
KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA**

**Gaia: OIARTZUNGO ARDITURRI MEATZEKO 1. SOLAIRUKO GALERIAREN ZOLADURA HOBETZEA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAREN GAIA**

Kontratuaren gaia da OIARTZUNGO ARDITURRI MEATZEKO 1. SOLAIRUKO GALERIAREN ZOLADURA HOBETZEA. Kontratu hau espedientean dagoen dokumentazio teknikoarekin adostasunean burutuko da, honek kontratu izaera daukalarik.

Kontratuaren gaiaren kodea CPV nomenklaturaren arabera: 45233200-1.

**2. OBRAK BURUTZEKO EPEA**

Kontratu honen helburu diren obrak burutzeko epea LAU (4) astekoa izango da, zuinketa egiaztapen akta izenpetu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lizitzaileek epe hori hobetu dezakete.

Obrak epe horretan amaitzen ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

**3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratuaren prezioa 93.334,75 eurokoa da, gehi %18ko BEZari dagokion 16.800,25 euro, guztira 110.135,00 euro. Eskaintzaileek diru-kopuru hori hobetu dezakete beraien proposamenetan. Beti ere, BEZari dagokion kopurua bereizita jaso beharko da.

Prezioak barne hartzen ditu kontratuari dagozkion Segurtasun eta Osasuneko, Kalitate Kontrolako eta Hondakinen Kudeaketaren Kontrolako Planak.

Kontratuaren prezioaren barruan banakako prezioen zerrenda egongo da. Izan ere, prezio horiek izango dira indarrean egongo direnak kontratuak dirauen bitartean. Eskaintzaileak banakako preziorik aurkezten ez badu Administrazioarenak oinarritzat hartzen dituela ulertuko da, baina eskaintzailearen prezio proposamenean jasotako beherako portzentaia kenduta.

#### 4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan.

#### 5. NOLA ORDAINDU

Burututako obra Zuzendari fakultatiboak egindako ziurtagiri bidez ordainduko da. ziurtagiria egin eta hurrengo berrogeita hamar eguneko epean, SPKLaren 200. artikularekin adostasunean, bere Zortzigarren Xedapen Iragankorarekin lotuta.

#### 6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, espedientean egiaztatzen denez.

#### 7. BERMEAK

a) Behin-behineko Bermea. - Ez da behin behineko bermerik eskatzen.

b) Behin betiko Bermea. - Kontratu honen lizitazioan proposamen ekonomiko onuragarriena aurkeztu duen eskaintzaileak, esleipen zenbatekoaren %5eko behin betiko bermea eman behar du, BEZ gabe, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 egun baldioduneko epean. Bermea SPKLAN ezarritako moduetako baten bidez jarriko da. Eskudirutan ordaindu nahi izanez gero Kutxako 2101 0060 00 00000 89367 kontu-zenbakian sartu beharko da. Kontratatik bere erruagatik betekizun hau ez badu betetzen ez da bere aldeko esleipenik egingo, 135.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Berme honen bitartez honako alderdi hauek bermatuko dira: 196 artikularekin adostasunean kontratatari jartzen zaizkion zigorrak; kontratuan jasotzen diren eginkizunak egoki egitea; Administrazioari sortutako kalteak, kontratatik bere betebeharrak berandu betetzeagatik Administrazioari eragindako gastuak; kontratua egikaritzean edo kontratua ez betetzeagatik eragindako Administrazioari eragindako kalteak, kontratua etetea egoki ez denean; kontratua suntsiarazten denean agindu daitekeen inkautazioa, kontratuan edo Legean ezarritakoaren arabera.

Baldin eta Administrazioa bermeaz baliatzen bada berehala osatu beharko da eta borondatez hala egiten ez bada horretarako emandako epean hurrengo ziurtagiritik kenduko da.

Berme epea amaitzen denean esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

#### 8. KONTRATUA BURUTZEA

Zuinketa egiaztapen akta izenpetzearekin batera hasiko da obra kontratuaren burutzapena, kontratuaren formalizaziotik aste bateko epean egin behar delarik akta.

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango obretan galera, matxura edo kalteak izaten baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan adierazitako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Horiek gorabehera, obrak egiterakoan honako hauek bete beharko dira: a) agiri honetan ezarritako baldintzak; b) baldintza-agiriarekin batera dauden xehetasun teknikoak, eta c) Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritakoak eta urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Herri Administrazioen Kontratuetao Legearen Araudi Orokorrean ezarritakoak. Bereziki, kontratuko obrak Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko dira, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua burutzeko obrek behar bezala aurrera egitea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Esleipendunak Eraikuntzako Arrisku Orotarako aseguruia kontratatu behako du esleipen zenbateko osoagatik, obra burutzen den bitartean indarrean egon behar duena. Kontratu aldatuko balitz eta aldaketak kontratuaren prezioa aldatuko balu bermatutako kapitala neurri berdinean aldatu beharko du esleipendunak.

## 9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK

Esleipendunak lan arloko, Gizarte Segurantzarekiko eta laneko segurtasun eta higienearen arloko indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

## 10. AZPIKONTRATAZIOA

Azpikontratazioari dagokionez, SPKLaren 210 eta 211 artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

Esleipendunak obraren zatiren bat azpikontratatu nahi badu Administrazioari jakinarazi beharko dio aurretik eta idatziz. Kasu horretan azpikontratatu nahi den zatia zehaztu beharko du eta azpikontratataren nortasuna eta obra egiteko duen gaitasuna egiaztatu. Azpikontratatutako enpresa zati hori egiteko klasifikazioa izatekotan, kontratistak ez du bere gaitasuna egiaztatu beharko.

Esleipendunak ezingo du esleipen prezioaren %50a baino gehiago suposatzen duen obra zatia azpikontratatu.

## 11. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Obrak burutzen diren bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturi egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo obrak behar bezala ez antolatu, babestu edo seinaleztatzeagatik gertatzen badira.

Esleipendunak Erantzukizun Zibileko Asegurua kontratatu beharko du, non Oiertzungo Udala barne hartuko da obraren sustatzaile bezala.

## 12. KONTRATUA ALDATZEA

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 202. artikulua araberak, administrazio kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik bakarrik aldatu ahal izango da, I. Liburuko V. Tituluan aurreikusitako modu eta kasuetan eta 195. artikuluan araututako prozeduraren arabera.

Kasu horietan, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

## 13. OBRA ZUZENDARIA ETA OBRA ORDEZKARIA

Kontratazio organoak izendatzen duen obra Zuzendaria egikaritze zuzena eman dadin beharrezkoak diren zuzendaritza, ikuskatze, egiaztapen eta zaintza lanak egingo ditu.

Obra Zuzendariak kontratazio organoak izendatzen duen langileen laguntza izango du.

Kontratazio organoaren obra Ordezkaria antzeko obretan egiaztatze moduko esperientzia duen tituludun teknikaria izan behar du.

## 14. OBRAK HARTZEA ETA BERME-EPEA

Obrak amaitu eta gehienez hilabete bat pasa baino lehen obraren harreraren egintza formal eta positiboa egingo da, dagokion akta eginez, SPKLaren 218. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Harrera egin eta hurrengo hiru hilabetetan kontratazio organoak azkeneko obra ziurtagiria onartuko du eta kontratazio organoak ordainduko dio kontratuaren likidazioaren kontura.

Gainera, urte bateko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Nolanahi ere, esleipendunak kontratua bete ez eta eraikuntzak ezkutuko akatsak izateagatik obra berme-epetik kanpo hondatzen bada, esleipendunak kalte eta galerei aurre egiteko erantzukizuna izango du, harreratik hamabost urteko epean. Epe hori amaitutakoan, bestelako kalte edo galerarik ez bada izan, esleipendunaren erantzukizuna amaitutzat joko da.

## 15. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

### A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeke.

### B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

Prestazioa burutzean akatsak izan badira Administrazioak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren %10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du.

## 16. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 206 eta 220. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratua suntsitzeko ondorengo kausa ezartzen da espresuki: esleipendunak kontratatzeke betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeke debeku arrazoia ez izatea), Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezartzen den arabera.

## 17. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio: a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## 18. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz jarduera arautzeko planen arabera jokatu du.

Beraz, esleipendunaren eta Udalaren arteko ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira.

Halaber, obrak hasi aurretik eta obrek dirauten bitartean jartzen diren seinaleak, obra-oharrak eta bestelako zeinahi iragarki edo idazkun, bai behin-behineko edo behin betiko, euskaraz jarriko dira edo EAeko bi hizkuntza ofizialetan, eta bi hizkuntzetan jartzen badira euskarazko testua erdarazkoa baino handiagoa izango da.

Hizkuntz betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio organoari dagokio baina kontratazioa eragin duen udal lantsailaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio organoaren eskutan jartzea. Hizkuntz betebeharrak behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua amaiazteko.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **19. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko jardunbide bidez egingo da SPKLaren 153 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoari jarraituz, testu horren 155.d) artikuluan jasotako kasua baita.

Kontratuaren esleipena egiteko honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat, gehienezko puntuaketa 45 puntu izanik:

- Prezioa: gehienez 40 puntu emango dira. Batez besteko eskaintzaren zenbatekoa kalkulatu da. Zenbateko hori %15 gutxitu (batez besteko eskaintza x 0,85) eta emaitzaren balio osoa baino eskaintza merkeagoak egongo balira, 0 puntu emango zaie kontzeptu horrengatik. Puntuaziorik altuena emango zaio batez besteko eskaintza %15 gutxitzetik sortzen den emaitzari eta ez zaio punturik emango lizitazioaren prezioari egokitu zaion eskaintzari. Bi balio horien artean proportzionalki estrapolatu da gainerako eskaintzen puntuazioa.
- Egikaritze epea: gehienez 5 puntu emango dira. Egikaritzeko epearen balorazioa egiteko, epe onena izango da proposamen guztiek eskainitako epeen batez bestekoa. Hortik gorako eta beherako epeak zehatu egingo dira, eta puntuazioa gutxitu egingo zaie eskaintza horren epearen eta batez besteko epe horren artean dagoen hilabete-aldearen arabera, formula honen arabera:

$$B = 5 \times \left( 1 - \frac{|P_o - P_m|}{P_m} \right)$$

termino hauen arabera:

B= puntuazioa  
Po= eskainitako epea  
Pm= batez besteko epea

## 20. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeke debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak hurrengo baldintzaren e) eta f) puntuetan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariak kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari baten kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeke gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkie.

Enpresariak, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

## 21. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoak ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: OIartzungo Udala, Done Eztebe plaza 1, 20180 OIARTZUN.

ORDUAK: 08:30-14:00.

EPEA: Egundunetan, enpresek lehiaketa honetan parte hartzeke gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, proposamenak aurkezteke epea bukatu arte.

Kontratazio honetarako gonbidapenak, gutxienez, kontratua gauzatzeko gai diren hiru enpresari bidaliko zaizkie, hori posible bada.

Proposamenak aurretik adierazitako lekuan eta ordutegian aurkeztuko dira, euskeraz edo erderaz, 10 egun naturaleko epean enpresek lehiaketa honetan parte hartzeke gonbidapena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkeztu diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen bidali. Dena dela, proposamena onartu egingo da baldin eta epe barruan bidali zela egiaztatzen bada. Horretarako, lehiatzaileak, proposamena bidaltzen duen egunean bertan, posta-egiaztageria bidali beharko dio kontratazio-organoari telekopiaz, faxez,

telegramaz edo posta elektronikoz. Bi baldintza horiek ez badira betetzen, proposamena ez da onartuko proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren jasotzen bada. Halaz ere, zehaztutako egun horren ondoren hamar egun natural igarotzen badira proposamena jaso gabe, proposamen hori ez da inola ere onartuko.

Gonbidatutako enpresek KARTAZAL BAKARRA, ITXITA, aurkeztu beharko dute adierazitako lekuan eta ordutegian. Kartazalean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz, eta kartazalean honako hau idatziko da: "OIARTZUNGO ARDITURRI MEATZEKO 1. SOLAIRUKO GALERIAREN ZOLADURA HOBETZEA, AKORDIOZKO PROZEDURA BIDEZ, KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA".

Hona hemen kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

a) Eskaintzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalardea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratzeko edo aldaketa-eskritura aurkeztuko du, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie.

Atzerriko enpresariak beren gaitasuna enpresak egoitza duen lurraldean datzan Misisio Diplomatiko edo Bulego Kontsularraren agiriaren bidez frogatu beharko dute, eta bere jatorrizko Estatuak Administrazioaren kontratazioan enpresa espainiarrak onartzen dituen txostena, baldin eta Komertzio Munduko Erakundearen Kontratazio Publikorako Akordioan parte ez bada.

c) Lehiatzaileak erantzukizunpeko berariazko aitortpena aurkeztu behar du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 49. artikuluan kontratatzeke ezarritako debekuetatik bat bera ere ez duela agertzeko. Aitorpen horretan berariaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala giten ez badu, egiaztagiria aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Ekonomia eta finantza kaudimena egiaztatzea, era honetan:

-Erakunde finantzarioen txostena edo, hala dagokionean, arrisku profesionaletarako kalteordain-aseguruaren egiaztagiria.

f) Kaudimen teknikoaren egiaztapena, era honetan:

-Azken bost urteetan egindako obren zerrenda aurkeztu beharko da, garrantzitsuenen kasuan ongi eginak izanaren ziurtagiria erantsiz.

g) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestaldekik, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

h) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo lioketela.

i) Jakinarazpenak egiteko helbide bat.

j) Honako eredu honen araberrako eskaintza ekonomikoa:

**Lehiatzailearen datuak:**

Izen-abizenak .....  
Helbidea .....  
Posta kodea ....., NAN, ....., Telefonoa .....

**Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):**

Izen-abizenak .....  
Helbidea .....  
Posta kodea ....., NAN edo IFK, ....., Telefonoa .....

OIARTZUNGO ARDITURRI MEATZEKO 1. SOLAIRUKO GALERIAREN ZOLADURA HOBETZEKO, kontratatzeke asmoz Oiarzungo Udalak dei egindako, akordiozko prozedura bidez, kontratazioan parte hartzeke gonbita jaso dudala, hona hemen nire

**ADIERAZPENA**

1) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: ..... €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, ..... €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta esleipendunaren industri onura ere. Kontratua burutzeko epea honakoa izango da: .....

2) Proiektua ezagutzen dut bere edukiarekin, bai eta kontratu hau arautu behar duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta gainontzeke agiriak ere. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3) Ordezkatzen dudak enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 2011ko .....aren ....(a)

Izenpea

Goiko a), b) eta d) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen eskaintzaileen ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

*\* Aurreko dokumentu guztiak jatorrikoetan, kopia kautoetan edo konpultsatuetan, edo fotokopia arruntetan aurkeztu ahal izango dira. Baina, azkeneko kasu horretan, abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen eskaintzaileak aipatutako dokumentazio horren jatorrikoak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu, kontratua esleitu aurretik.*

*\*\* Esleipendun izan ez diren enpresa eskaintzaileek eskatu ahal izango dute, kontratua formalizatu eta errekurtsioak jartzeko epea igarotakoan, errekurtsorik jarri gabe, aurkeztutako agiriak itzultzea. Esleipendunak ere agiri horiek itzultzea eskatu ahal izango du, kontratua exekutatu ostean eta behin betiko bermea itzuli ondoren.*

*Esleipena egin eta urte bateko epean eskaintzaileek ez badute aurkeztutako dokumentazioa itzultzea eskatzen, suntsitu egingo du Administrazioak.*

## 22.- NEGOZIAKETARAKO GAI TEKNIKO ETA EKONOMIKOAK

Aipaturiko e) eta f) letretan ezarritako eskaintzaileen kaudimena eta beraien nortasuna egiaztatu ondoren, eskaintzaileekin eskaintzen negoziazioa hasiko da SPKLaren 162. artikuluaarekin bat, plegu honen 19. baldintzaren arabera ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituz.

Negoziatioa amaitzean, baldintzak aldatzeko konpromisoa hartu dutenek azken eskaintza aurkeztu beharko dute, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena zein den balioetsi eta hautatzeko.

## 23.- ESLEIPENA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

Proposamenak ikusirik, eta, egoki denean, eskaintzaileekin negoziatioak egin ondoren, aurretiko teknikoaren txostenak eta ondorengo Batzordearen diktamina egin ondoren, espedientea kontratazio-organo eskudunari aurkeztuko zaio, aurkeztutako proposamenen klasifikazioa egin dezan. Esandako klasifikazio hori egiteko plegu honetan ezarritako esleipen-irizpideak hartuko ditu kontuan.

Proposamen ekonomiko onuragarriena egin duen eskaintzaileak gehienez 10 laneguneko epea izango du, eskakizun hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, ondoren zehazten diren ziurtagiriak aurkezteko:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete izana egiaztatzen duten agiriak, non eta ez dituen alde aurretik eskaintzarekin batera aurkeztu.
- b) Hala balegokio, kontratua betetzeko agindu dituen bitartekoak benetan jarri dituela egiaztatzen duten agiriak.
- c) Kontratuaren egikaritzeak hirugarren pertsonengan eragin ditzaketen kalteei aurre egiteko Erantzukizun Zibileko aseguru poliza baten kopia eta poliza hori kontratatzekeo prima ordaindu izanaren ordainagiria aurkeztea.
- d) Behin betiko bermea jarri izana.

Eskakizun hau aipatu epean eta behar bezala betetzen ez bada, eskaintzaileak bere eskaintza aurkezteari uko egiten diola ulertuko da eta, eskaintzen sailkapenari jarraiki, ondorengo lizitatzaileri eskatuko zaizkio agiri berdinak.

Kontratuaren esleipena ebazpenaren bidez erabakiko du kontratazio organoak, bertan kontratuaren behin-betiko baldintzak zehaztu eta finkatuko dira, eskatutako agiriak jasotzen diren egunetik 5 laneguneko epean. Ebazpen hori hautagaiei edo lizitatzailerei jakinaraziko zaie eta Oiarzungo Udaleko Kontratatzailearen Profilean ([www.oiarzun.org](http://www.oiarzun.org)) argitaratuko da.

Nolanahi ere, baztertutako eskaintzaileek, igortzen zaien jakinarazpenean, esleipen erabakiaren aurka nahiko oinarri duen helegitea, hala balegokio, aurkezteko beharrezkoa den informazio guztia jaso beharko dute. Horiei eman beharreko informazioari dagokionez, SPKLko 137. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Jakinarazpena hartzaileak jaso duela ziurtatzen duen edozein bitarteko erabiliko da erabakiaren jakinarazpena egiteko.

Kontratazio organoak ezingo du utzi kontratua eman gabe, baldintza-agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den proposamen edo eskaintzaren bat jaso bada.

Eskaintzaileak esleipenaren jakinarazpena 135.4 artikuluan aurreikusitako moduan jasotzen duten egunetik kontatzen hasita 15 laneguneko epean gehienez ere sinatu beharko du kontratua, Administrazioaren aurrean agertuz.

Kontratuak formalizazioaren bitartez indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, interesduna entzun eta gero, Administrazioak kalte-galerak eskatu ahal izango ditu.

Esleipena egiteko gehienezko epea 2 hilabetekoa izango da, proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori, 15 laneguneko epeaz luzatu ahal izango da, neurritz kanpoko edo normala ez den proposamenen bat identifikatzen denean. Izan ere, kasu horretan, eskaintza hori aurkeztu duen lizitatzaileri entzunaldia eskaini behar zaio, eskaintzaren balorazioa justifika dezan eta baldintzak zehaztu ditzan. Esleipena aipatu epeen barruan gauzatuko ez balitz, lizitatzailerek proposamena atzera botatzeko eskubidea izango lukete.

SPKLaren 139.2. artikulua arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, eskaintzaileei esleipenak eragindako gastuak ezarriko ditu Administrazioak, entzunaldia eginez eta behar bezala ziurtatuz.

Zuinketaren egiaztapen akta, kontratua formalizatu eta gehienez ere aste bateko epean egin beharko da.

### **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

#### **24. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak, urriaren 30eko 30/2007 Legearen bidez onetsiak, eta Sektore Publikoaren Kontratua Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege-Dekretuan ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, urriaren 12ko 1.098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, ezarritako arauak ere bete beharko dira, aurrekoekiko kontraesanek ez dagoen guztian indarrean dagoena, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

#### **25. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organiko eta hori garatzen duten arauekin lotuta.

#### **26. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratuaren ondorioz sor daitezkeen desadostasunez arduratzeko eskumena duen jurisdikzioa kontentzioso-administratiboa da.

Kontratua aplikatzerakoan eta interpretatzerakoan, exekutatzerakoan, aldatzerakoan, betetzerakoan edo amaitzerakoan sortutako zalantzak kontratazio organoak erabakiko ditu, eta erabaki hauek berehala exekutatu dira.

Oiartzunen, 2011ko uztailaren 18an.